

## **EZ ZAITUZTEGU BEHAR ASKE IZATEKO!** **Azaroak 25, indarkeria matxistaren aurkako eguna**

### **Aske izateko poliziarik ez!**

Emakumeok\* inori eraso egin ez arren, bizkartzainek eta bestelako kontrol mekanismo polizialek gure askatasuna mugatzen dute. Segurtasun eredu horrek ez gaitu aske sentiarazten; alderantziz, are gehiago biktimizatzen gaitu. Poliziak gorpuzten duen maskulinitate ereduak eta iraunarazten duen menderatze sistema berberak kolpatzen gaitu emakumeoi\*.

### **Aske izateko prebentzioa!**

Jendarte feminista eraikitzeko ezinbestekoa da hezkuntzan eta profesionalen formakuntzan inbertitzea. Horrela, indarkeria matxistaren erreproduzio eta legitimazio mekanismoak deuseztuko ditugu, guztion artean!

### **Aske izateko diskurtso hutsalak soberan!**

Soberan ditugu neurri integralik eta aurrekontu partida nahikorik gabeko puntu more, isiltasun minutu, gezur eta argazkiak. Ez dugu garbiketa morerik nahi!

### **Aske izateko baliabideak!**

Indarkeria jasa(te)n dugun emakumeok\* eskura behar dugu asistentzia sozial, psikologiko eta legala erreparaziorako eta bizitza duinari eusteko; salaketa judiziala ezarri ala ez. Doako, kalitatezko eta unibertetsala den laguntza sozial, psikologiko eta legala orain!

### **Aske izateko espetxerik ez!**

Ez doa arazoaren muinera zigorrak gogortzen dituen sistema judiziala. Behin eta berriro ikusi dugu kartzela ez dela birgaitzeko eta berjendarteratzeko tresna, arazoak konpondu baino areagotu egiten dituela. Horregatik, *espetxealdi iraunkor berrikusgarriaren* aurka gaude! Espetxeak apurtu!

### **Aske izateko justizia feminista!**

Beharrezkoa da justizia eredu birpentsatzea, fokua erasotuen erreparazioan eta babesean jartzea. Ezinbestekoa da berriz ez errepikatzea bermatzea. Horretarako, funtsezkoak dira emakumeon\* sinesgarritasuna, testigantzen balioa eta jazotakoaren aitortza. Prozesuaren erdigunean erasotua jartzea, haren beharrak, askatasuna eta erritmoak aintzat hartzea nahitaezkoak dira.

### **Aske izateko xenofobiarik ez!**

Ez ditugu behar eta ez ditugu nahi arrazakerian, beldurrean eta kontrolean sakontzen duten diskurtsoak. Alferrikakoak dira erasotzaileak gaixo mental edo basapiztia moduan hartzen dituzten errelatoak, indarkeria egiturazkoa ez bailitzan.

### **Aske izateko ardurak haien gain hartzen dituzten gizonak!**

Erasotzeari uzten dioten gizonak behar ditugu, konplizitate sare patriarkalekin apurtu eta indarkeria matxistan duten erantzunkizunaz kargutzen direnak, ingurune hurbilean aldaketak eraginez. Bereziki, arazoan konponketan inplikatu daitezen eta jarrera ez protagonista mantentzea behar dugu, eurak edo haien inguruko gizonak erasoan erantzuleak direnean.



**Aske izateko komunikabide morbosorik ez!**

Ez dira anekdotak egunero pairatzen ditugun erasoak, ez dira kasu bakanak. Indarkeria matxistaren ezerezteak dakarte kokapen feministarik gabeko tertulia arrosek, eraso motak mailakatu eta sentsazionalismora jotzen dutenak.

**Aske izateko komunitate antolatuak!**

Haien baitako gatazkak kudeatzen dituzten eta minak kolektiboki osatzen inplikatzeko direnak. Hauen baitan antolatzen jarraituko dugu feministok, denak aske izan arte!

**Aske izateko dugun armarik zorrotzema emakumeon\* artean elkar babesteko sareak dira! Ekin autodefentsa feministari!**

2019ko azaroaren 25ean  
EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA



**¡NO OS NECESITAMOS PARA SER LIBRES!**  
**25 de noviembre día contra la violencia machista**

**Para ser libres, ¡policía no!**

A pesar de que nosotras no agredimos a nadie, los guardaespaldas y demás mecanismos de control policiales limitan nuestra libertad. Ese modelo de seguridad no nos hace sentirnos libres; al contrario, nos victimiza aún más. Los modelos masculinos que encarna la policía, y al mismo tiempo perpetúa la existencia de éste sistema de dominación, son los que nos golpea a las mujeres\*.

**Para ser libres, ¡prevención!**

Con miras a construir una sociedad feminista, es imprescindible se invierta en la educación y en la formación de los y las profesionales. De esa manera, anularemos y destruiremos entre todas, los mecanismos de reproducción y legitimación de la violencia machista.

**Para ser libres, ¡fuera los discursos vacíos!**

Nos sobran los puntos morados sin partidas presupuestarias o medidas integrales suficientes. Nos sobran los minutos de silencio, las mentiras y fotos. ¡No queremos lavados de cara!

**Para ser libres, ¡recursos!**

Las mujeres\* que padecemos y hemos padecido la violencia machista, habiendo puesto una denuncia judicial o no, necesitamos de asistencia social, ayuda psicológica y legal para la reparación y para tener una vida digna. Es por ello que exigimos una ayuda social, psicológica y legal gratuita, de calidad y universal ¡ya!

**Para ser libres, ¡cárcel no!**

No se dirige a la raíz del problema aquella justicia que endurece las penas. Una y otra vez hemos visto que las prisiones no son ninguna herramienta de rehabilitación o reinserción. Más que arreglar problemas la cárcel los acrecienta. ¡Por ello nos posicionamos en contra de la *prisión permanente revisable*! ¡Rompamos las cárceles!

**Para ser libres, ¡justicia feminista!**

Es necesario repensar el modelo de justicia actual poniendo el foco sobre la reparación de las personas agredidas y en el apoyo que puedan requerir. Es indispensable se garantice que no vuelva a suceder. Para ello, es fundamental la credibilidad de las mujeres\*, el valor de los testimonios y reconocimiento de lo vivido. Es obligatorio tomar que la libertad y las necesidades de las mujeres estén en el centro del proceso.

**Para ser libres, ¡xenofobia no!**

Ni necesitamos ni queremos los discursos que alimentan el racismo, el miedo y el control. En balde son los relatos que presentan a las personas agresoras como enfermos mentales o salvajes, como si la violencia no fuese estructural.

**Para ser libres, ¡hombres que asuman las responsabilidades!**

Necesitamos a hombres que dejen de agredir, que rompan con las redes patriarcales y que se hagan cargo de la responsabilidad que tienen en lo que a la violencia machista se refiere, generando cambios en el entorno cercano. Especialmente, necesitamos se impliquen en la resolución del conflicto con una actitud no protagonista cuando sean ellos o sus compañeros los responsables de las agresiones.



**Para ser libres, ¡no a los medios de comunicación morbosos!**

No son anécdotas las agresiones que padecemos todos los días, no son casos aislados. Todas esas tertulias rosas y sensacionalistas faltas de un posicionamiento feminista que escalonan los tipos de agresiones, no hacen más que negar y omitir la violencia machista.

**Para ser libres, ¡comunidades organizadas!**

Hacemos llamamiento a comunidades organizadas donde se impliquen las personas dispuestas a gestionar sus propios conflictos internos y sanar los dolores colectivamente. En ellas las feministas seguiremos organizándonos, ¡hasta que todas seamos libres!

**La herramienta más implacable que tenemos son las redes de apoyo entre nosotras. ¡Autodefensa feminista!**

**25 de Noviembre del 2019  
EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA**